



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa*

## ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO PROGRAMARI (PREE) BURUZKO OHIKO GALDERAK

### HARTZAILEAK - LEGEZKO ORDEZKARIAK

**Laguntza eskaera legezko ordezkari batek egin dezake?**

Bai.

**Etxejabeen komunitateko lehendakariak gauzatu behar du eskaera?**

Ez, legezko ordezkari bat izenda daiteke, hala nola finka-administratzaile bat...

### ESKAEREN AURKEZPENA - PROIEKTUEN EGIKARITZEA

**Laguntza eskatzen den unetik aurrera hasiko diren proiektuak bakarrik aurkez daitezke?**

Bai, hala dago ezarrita PREE programaren oinarrietan.

**Badago ordezkaritza dokumentu estandarren bat erabilgarri?**

Eskaera aurkeztuko duen pertsona ordezkari gisa agertuko da Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan, edo notario ahalorde bidez emana izango du ordezkaritza, edo, salbuespen gisa, PREE laguntza programaren barruan eskuragarri dagoen ereduaren arabera jasoko du ordezkaritza (EEEren webgunean: [www.eve.eus](http://www.eve.eus)).

### DIRU LAGUNTZA JASO DEZAKETEN EKINTZAK

**Energia-instalaziorik ez duen higiezin batek jaso dezake laguntza?**

Ez, ezin izango bailitzateke bete energia aurrezteari lotutako eskakizuna.

**Laguntza jaso dezakete jada eginak dauden proiektuek edo aurreko PAREER programetan dirulaguntzak jaso ez zituzten proiektuek?**

Ez, proiektuak jada egikarituta badaude, edo, egikarituta egon ez arren, ez badituzte betetzen PREEren egungo oinarrietako baldintzak.

**Programan aurkeztu daiteke eraikin bateko atari bakar baterako proiektu bat?**

Bai, baldin eta ataria gainerako atarietatik independentea den etxejabeen komunitate bat bada; atariak bere IFK izan beharko du, gainerako atarien IFKren desberdina.



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa*

## PROZEDURA

**Zein oinarri hartu behar dira kontuan, IDAEk argitaratutako Errege Dekretukoak ala EEEk argitaratutakoak?**

Euskadin PREE laguntza-programa arautzen duen dokumentua EEEk programaren oinarriari buruz argitaratutakoa da, eta erakundearen webgunean dago: [www.eve.eus](http://www.eve.eus).

**Zer egiaztagiri behar dira plataforman sartzeko?**

Helbide honetan kontsulta daitezke identifikazio elektronikorako bitarteko onetsiak: [https://www.euskadi.eus/web01-sede/es/contenidos/informacion/certificados\\_admitidos/es\\_cert\\_ele/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-sede/es/contenidos/informacion/certificados_admitidos/es_cert_ele/index.shtml)

**Non eskura ditzaket PREE programaren oinarrietan aipatzen diren erantzukizunpeko adierazpenak?**

Erantzukizunpeko adierazpenak laguntza-eskaeran bertan txertatuta daude, eta hura formalizatzean agertzen dira.

**Eskaera egiteko fasean beharrezkoa da higiezinako bizilagun bakoitzaren dokumentazio indibiduala aurkeztea?**

Ez; ikusi hutsen zerrendaren dokumentua EEEren webguneko PREE programan: [www.eve.eus](http://www.eve.eus).

**Bada justifikazio-txostenaren eredurik, IDAEren aurreko PAREER programetan bezala?**

Ez, baina aurreko PAREER programetako ereduak erabil daitezke, egungo PREE programara egokituta.

**Laguntza eskaeraren data aldatu egiten da, espedienteari zuzenketak eginez gero?**

Bai. PREE laguntza-programaren oinarrian adierazitakoaren arabera, zuzenketak egiten diren data hartuko da eskaeraren datatzat.

**Izapidetu daiteke laguntza-eskaera, obrak egiteko baimena eduki gabe?**

Bai. Ondoren, kasu bakoitzari aplikagarriak zaizkion arau guztiak bete beharko dira.

**Laguntza jasoko duten ekintzek aplikagarria zaien indarreko araudia bete beharko dute, eta nahitaezko lizentzia eta baimen administratiboak eduki beharko dituzte, horrelakoak behar izanez gero?**

Bai.

**Proiektuak osatuta egon behar du, onetsita ez badago ere?**

Bai. Hortaz, beste txosten batzuen artean, honako hauek ere eduki beharko ditu: kalitate-kontrolerako plana, baldintza teknikoen agiria, segurtasun eta osasuneko oinarritzko azterketa eta hondakinen kudeaketaren azterketa.



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

### ***Una manera de hacer Europa***

#### **Nork eman behar du inbertsio konbentzionalari buruzko informazioa?**

Jarduera ekonomikoa gauzatzen duten eskatzaileek bakarrik.

#### **Zer da inbertsio konbentzionala eta nola balioesten da?**

Inbertsio konbentzionala zera da, ordeztuko diren instalazioen balio ekonomikoa (aurrekontu teorikoa). Hortaz, ordezkapen-kasuetarako bakarrik da, adibidez, isolamendu termiko baten ordezkari beste bat jartzen dutenerako, edo C gasolioko galdara baten ordezkari geotrukeko instalazio berri bat jartzen dutenerako. Balio teorikoa, aparteko aurrekontu batean jakinarazi beharrekoa, ordeztutako elementuaren merkatuko balioa izango litzateke; adibidez, bai isolamenduaren kasurako, bai C gasolioko galdararen kasurako, horien balioa adierazi beharko litzateke, berriro merkatuan eskuratuko balira. Balioa teorikoa da, gerta baitaiteke ordeztu beharreko produktua jada ez egotea eskuragarri merkatuan.

#### **Zer egin behar da bizilagunen batek ez badu parte hartu nahi proiektuaren faseren batean eta ondorioz ez badu aurkezten beharrezko dokumentazioa...?**

Ezin da erantzun zehatz bat eman. Kasu bakoitza aztertuko da, laguntza-programaren oinarrietan aipatutako eskakizunak kontuan hartuta.

#### **Programan jasota dago maileguen aukera?**

Ez.

#### **Zer unetan jarri behar da ikusgai jarduketaren publizitate-kartela?**

Obra egikaritzeko fasean (behin-behineko kartela) eta proiektuaren emaitzak iraun artean (kartel iraunkorra).

#### **BEZa aukerako kostu bat da?**

Bai, ezin bada osorik edo partzialki berreskuratu edo konpentsatu.

#### **Aurrekontuak laguntza-programa indarrean jarri ondorengo izan behar du?**

Aurrekontuak 737/2020 ED indarrean jarri ondorengo izan behar du (ikus hutsuneen zerrendaren dokumentua EEEren webguneko PREE programan: [www.eve.eus](http://www.eve.eus)).

## **BATERAGARRITASUNAK**

#### **EEEren PREE programa bateragarria da beste laguntza-programa batzuekin?**

Bai, baldin eta beste laguntzen funtsen jatorria ere ez bada FEDER. Dena den, gainerako laguntza-programetan aurreikusitako baldintza espezifikoak kontsultatu behar dira.

## **EFIZIENTZIA ENERGETIKOA INGURATZAILE TERMIKOAN**



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

### ***Una manera de hacer Europa***

#### **Egiaptapen energetikoko zer programa eta bertsio erabili behar ditut kalifikazio energetikoa hobetzeko justifikazioetan?**

Eskaera-fasean eta isurpenen kalifikazioan letra bat gainditzea egiaztatzeko: programa eta bertsio berberak erabiliko dira (hobekuntza proposamenaren aurretik eta ondoren), eta balioduna izango da webgune honetan egun indarrean dauden programen bertsioa:

<https://energia.gob.es/desarrollo/EficienciaEnergetica/CertificacionEnergetica/DocumentosReconocidos/Paginas/procedimientos-certificacion-proyecto-terminados.aspx>

Justifikazio fasean, birgaitutako egoeraren egiaztagiria eskaeran erabilitako programa berberarekin inskribatu beharko da, eta eskaeraren uneko indarreko bertsioa erabiliz: egiaztapen-dokumentu aitortu berriak onartuz gero, indarrekoak ordeztuko, **birgaitutako egoeraren egiaztagiria eskaeran erabilitako programa berberarekin inskribatu beharko da**, eta **justifikazioaren unean indarrean dagoen** bertsioa erabiliz.

#### **Nahitaez bete behar da 732/2019 Errege Dekretua?**

Kontuan hartu beharko da Eraikuntzako Kode Teknikoa aldatzen duen abenduaren 20ko 732/2019 Errege Dekretua aplikatzeko epeak berriro zenbatzen hasteri buruzko ohar informatiboa (2020/07/08):

<https://www.codigotecnico.org/noticias/2020-07-08-Nota-informativa-reanudacion-plazos.html>

#### **Egungo egoeraren (berritze-lanen aurretik) indarreko egiaztagiri erregistratu bat daukat, CE3x v. 1.3. bertsioekin egina (21/04/14 bertsioa). Zer egiaztagiri aurkeztu behar ditut, eskaera egiteko?**

3 egiaztagiri:

- o Egungo egoeraren indarreko egiaztagiri erregistratua.
- o Egungo egoeraren egiaztagiri erregistratu gabea, laguntza eskatzen den unean indarrean dagoen bertsioarekin.
- o Proposamenaren egiaztagiri erregistratu gabea, laguntza eskatzen den unean indarrean dagoen bertsioarekin.

#### **Zer organori eskatu behar diot salbuespen-dokumentua, nire eraikina efizientzia energetikoko egiaztagiria aurkeztetik salbuetsita badago?**

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen efizientzia energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan eta 235/2013 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera eraikin batek edo eraikin baten zati batek ez badu egiaztapen energetikoa aurkeztu behar, horien sustatzaileak edo jabeak salbuespen horren dokumentua eskatu ahalko dio Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari, bai posta arruntez (Donostia kalea, 1. zk., 01010 Vitoria-Gasteiz), bai posta elektronikoz ([registrocee@euskadi.eus](mailto:registrocee@euskadi.eus)), eredu honi jarraituz:



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

***Una manera de hacer Europa***

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/certific\\_energia\\_energetica/es\\_def/adjuntos/SALBUESTEKO-ESKAERA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/certific_energia_energetica/es_def/adjuntos/SALBUESTEKO-ESKAERA.pdf)

**Bada CE3X egiaztapen-programaren bertsio eguneraturik, CTE DB-HE 2019 kodeko betebeharrak egokituta?**

CE3Xren azken bertsio onartua CE3Xv2.3 da:

<https://energia.gob.es/desarrollo/EficienciaEnergetica/CertificacionEnergetica/DocumentosReconocidos/Paginas/procedimientos-certificacion-proyecto-terminados.aspx>

**Beharrezkoa da emaitzak kontrol-organismo eskudun baten bidez egiaztatzea?**

Bai.